

Dabit Arriola Sarasuaren argazki funtsa



Identifikazioaren eremua

Erreferentzia-kodea	ES20030AME_FDA
Izenburua:	Dabit Arriola Sarasuaren argazki funtsa
Data	1919/1982
Deskripzio maila	01 - Funtsa
Bolumena:	655 argazki paperean; Z/B-ko negatibo 2; 60 negatibo koloretan eta 20 diapositiba formatu ertainekoak, koloretako 450 negatibo paso unibertsalekoak.

Testuinguruaren eremua

Ekoizlearen izena.

Arriola Sarasua, Dabit

Iruzkin biografikoa

(Eibar, 1923.1995). Eibarko Klub Deportiboarekin lotura handia izan zuen; Mendi Batzordearen presidente izandakoa; batzorde ia guztietan hartu zuen parte (euskal dantzak, argazkilaritza, xake-jokoa, eskia, mendia, atletismoa...), kirol eta kultura arloko antolatzaile handienetakoa. Argazkilari zaletu legez, erakusketa bi egin zituen Eibarren: 1973ean "Baserria-el caserío" izenekoa Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Munizipalean eta beste bat 1982an Eibarko udaleko Kultura Aretoan.

Artxiboaren historia

Dokumentazioa, Dabit Arriolaren artxibokoa da.



Sarrerari buruzko datuak

Dabit Arriolaren heriotzaren ondoren, 1995eko ekainaren 8an San Andres Fundazioko buruak eta Arriolaren senideek egindako dohaintza.

Edukiaren irismena eta egitura

Garrantzia eta edukia

Funtsa familia-argazkiek eta lagunei ateratako argazkiek osatzen dute, 1919tik Arriolaren heriotza arte; argazkiak Dabitek berak egindakoak eta herriko beste argazkilari batzuenak dira (Indalecio Ojangurenena eta Castrillo Ortuosterena), baita Eibarko Klub Deportiboan parte hartu zuen batzordeetako lanarekin zerikusia duten argazkiek ere (xake-jokoa, atletismoa, euskal dantzak, eskia, mendia...)

- Album gorria: 300 argazki, familiarenak, lagunena, Eibarko Klub Deportiboarekin zerikusia dutenak.
- . - Album marroia: 220 argazki, herrikoak eta Eibarko baserrienak.
- . - 107 argazki koloretan, bizimodu sozialekoak.
- . - Baserrien erakusketa. 39 argazki, koloretakoak, 20x25 cm-koak, passpartoutarekin.
- . - CAMren erakusketakoak: 25 argazki, koloretan, 20x25 cm-koak, passpartoutarekin.
- . - Negatiboak
- . - Diapositibak

Antolamendua.

- Familia
- Klub Deportiboa
- Eibarko bizimodu soziala.
- Baserriak eta herria

Erabilera eta sarbidea: Baldintzak

Eskuratzeko baldintzak

Izaera publikoko artxibo-funtsa.
Sarbide librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin.

Erreproduzitzeko baldintzak

Erreproduzio librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin.

Ezaugarri fisikoak eta betekizun teknikoak

Orokorrean ona, argazki zaharrenek kalteren bat edo beste badute.

Lotutako dokumentazioaren eremua

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udal Artxiboa.





Lotutako deskribapen-unitateak

Indalecio Ojanguren Arrillaga Argazki Fondoa.
Castrillo Ortuoste Argazki Fondoa
Ramon Sarasua argazki Bilduma

5.4. Argitalpenei buruzko oharra

. - SARASUA, ASIER y SARASKETA ANE: "Eibarko Baserriak". Ego Ibarra. Eibarko Udala, 1996
.- "Eibarko Klub Deportiboa, 1924-1999". Club Deportivo Eibar. 1999

Deskribapen Kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

Arauak

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

Deskribapen-data

2008-04-07

